

Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1922'ko Lotazila'ren 28'an.

Azkue maipuru dala agertu diran euskaltzañak abetxek dira: Eguskitza, Olabide, Landeretxe, Altube, Intza, Lakonbe ta urgazletatik Nazario Oleaga jauna.

Oiturazko otoitza maipuruak egin-da, Eguskitza jaunak aurre-ileko batzaraldien ageria irakurri du ta onetsi da.

1. Gernika'ko Euskal-Batzar egunetan, Izkerasalak artu dituen erabakietatik, Euskaltzaindiak bereziki bete bear dituenak zeintzuk diran *Eusko-Ikaskuntzari* galde bear zaio.

2. «Asociación de padres de familia para la defensa del euskera» deitzen dan baltzuari, Azkue jaunak txosten bat zuzendu dio. Txosten oren izena auxe da. «Normal vasca para las institutrices», eta Bizkaian baltzu oren arduradun dan Nazario Oleaga jaunari eskuz eman zaio. Baltzu onen adar bat Bidasoatik aruzko erietan sortarazteko Daranatz jauna izendatu da.

3. Aita Intza'ren ustez, Euskalefiko mutiko ta neskatilentzat oso egokia litzake, apaingailudun aldiroko bat sortzea. Oretarako erestason aundia da, Itali'ko etxe batek eskeintzen duen *Klitxe* batzuen erosketa, merke diran ezkerero, Euskaltzaindiaren erabakia: Oraingoz beñepein ezin ditekela arazo oren bideetan sartu, beste esku arteko lan garantzidunak bukatu arte.

4. Aita Soloeta-Dima'ren «Ensayo de unificación...» deitzen dan liburuñoari Azkue jaunak bere lan eder batez erantzun dio.

5. Belaustegigoitia Perderika jaunak *Lutelesti* bat eginda dauka. Lantxo au Euskaltzaindiari bidali zion, argitaratzeko onen baimena eskaturik. Eguskitza ta Altube jaunak aztertu dute ta euskaltzain abek dasate: oráztu bear aundia duela. Orétxegatik Euskaltzaindiak ezin baimenik eman lizaioke, ta gutxiago, beriz, bere lepoz argitaratu. Ondo idatzia balego ere gero arte itxo egin bear luke.

6. Bergara'ko Udalak Euskaltzaindiari eskari bat egiten dio. Iru kalei izen berriak ezari nai dizkio ta jakin gura leuke, zelan esan euskeraz: *Calle de don Pedro de Irizar, de D. Ramón María de Lili y de D. Luis de Eleizalde*. Euskaltzainiak abo batez desate: Abizen oiek bakar idatzi bear dirala, atzetik *Kale jañi-ta*, onela: *Irizar-Kalea, Lili-Kalea, Eleizalde-Kalea*.

7. Napañoa'ko Aldundiak idazki bat bidali dio Euskaltzaindiari, esanik: Etxari-Aranaz eta Donestebeko euskal-jaiak egiteko 2.850 peseta emango dituela. Eskerak!

8. Schuchardt jaunak, bere eskutitz batez, bere eskerbiderik maitena agertzen du, sorospide bat bidali ta bere izeneko sari bat, Euskaltzaindiak soñtu duelako.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi-ta oituzko otoitzaz bukatu da batzañaldi au.